

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Langraiz Ganboan bide publikoaren zati bat desafektatzeko espedientea

2023ko abuztuaren 30eko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren bidez, Langraiz Ganboan da-goen eta 90,17m²-ko azalera duen bide publikoaren zati bat desafektatzeko espedientea onartu da.

Mugak:

Iparraldean: 1. poligonoko 510 katastroko lurzatia eta zati batean bide publikoa.

Ekialdean: Lursail publikoa.

Hegoaldean: 1. poligonoko 122. lurzatia eta 1. poligonoko 522. lurzatia.

Mendebaldean: 1. poligonoko 122. lurzatia.

Espedientea jendaurrean egongo da udal bulegoetan, 8:00etatik 14:00etara, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean, erreklamaziorik edo alegaziorik balego ere. Udalaren webgunean ere argitaratuko da: <https://arratzua-ubarrundia.eus/eu/udal-zerbitzuak/hirigintza>.

Erreklamazio edo alegaziorik ez badago, espedientea behin betiko onartuko da higiezinaren kalifikazio juridikoa aldatuz, eta harrera formala egitea eta udalaren ondarean sartzea erabakiko da, ondare izaerako ondasun gisa kalifikatuta.

Durana, 2023ko abuztuaren 30a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE